



**FORU GOBERNUAREN ERABAKIA:GOBERNANTZA ETIKO, ZENTZUDUN
ETA ERAGINKORRERAKO KONPROMISOAK**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOKO FORU KARGU PUBLIKOEN
JOKABIDEA ETA JARDUERA ZEHAZTEN DITUZTEN BALIO ETA PRINTZPIOAK, ERAKUNDEAREN
ZUZENTASUN SISTEMAREN ESPARRUAN**



AZALPEN MEMORIA

Aurkezpena

Inbestidura hitzaldian, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diputatu nagusi Markel Olanok bereziki azpimarratu zuen gobernatzeko moduan aldaketak egin behar direla, eta aldaketa horien helburua dela "proiektu ireki, etiko, eraginkor eta autokritiko bat" osatzea.

Proiektu hori da, hain zuzen ere, Foru Gobernuak 2015-2019 agintaldirako duen erronka nagusietako bat: "gobernatzeko moduak eraldatzea eta Gobernantza Ona bihurtzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasun ezaugarri".

Ideia-indar hori ere behar bezala islatu zen "Eusko Abertzaleak (EAJ) eta Euskal Sozialistak (PSE-EE) batzarkide taldeen artean Gipuzkoako Foru Aldundia koalizioan gobernatzeko Itunean".

Hain zuzen ere, itun horretan jarraian zehaztutako ideiak aipatzen dira, eta horiek guztiak lotzen dira, zuzenean edo zeharka, Gobernantza Onerako Politika batekin, Gobernantza Ona izango baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburu nagusia datozen urtetarako:

- Lidergo partekatua ezartzea. Itunean xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako gizarteak "lidergo partekatuko eredu" lehentasuna ematea eskatzen du, eta horretarako, "presentzia aktiboa indartu behar da, eta herritarren zein horien premiekin konexioa handitu behar da".
- Kudeaketa publikoko funtsezko tresnak modu iraunkorrean modernizatzekeo prozesuari aurre egin behar zaio, eraginkortasuna, eragimena eta iraunkortasun ekonomikoa lortzeko, eta beraz, gobernu hobea lortzeko.
- Gobernu Onaren politikak gure nortasun ezaugarri bihurtzea.
- Jokabide erabat gardena eduki eta izaera gardena erakustea, herritarren arteko konfiantza oinarritutako harremana ezartzeko.
- Herritarren partaidetza eta konpromisoa indartzea, erabakiak hartzekeo prozesuen gunean herritarrak, eragile sozialak eta elkartegintza ezarriz, eta "baterako sorkuntza oinarritutako jarduerak publikorantz" benetako aurrerapausoak emanez.
- Kontuak modu eraginkorrean ematea, foru botere publikoak eta horrek eskaintzen dituen zerbitzuak "azterketa publiko eraginkorpean eta gizarte ikuskapenpean jarriz".
- Gobernatzekeo eta zerbitzuak ematekeo moduan ekintzailtza eta berrikuntza sustatzea.
- Kudeaketa publikoaren arduradunek, beren funtzio eta proiektuak garatzekeo orduan, jokabide etikoa dutela bermatzea.



- Datu publikoen benetako eskuragarritasuna erraztea.
- Esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatzea, Gipuzkoako Lurralde historikoko erakunde publikoek bete beharreko bitartekotza paperaren bidez, "aukera ematen duten egoera guztietan".
- "Antolakuntza Eredu Berriaren" aldeko apustua egitea, "zeharkakotasunean eta desburokratizazioan" oinarrituta.
- Harremanean eta adostasunean oinarritutako Gobernurantz aurrera egitea, herritarrekin eta eragile sozialekin harreman-bideak sustatzen dituenak, horretarako teknologia berriak erabiliz eta partaidetza, eztabaidan zein hausnarketan oinarritutako gobernantza ereduak garatuz.

Horretarako, koalizioan gobernatzeko Itunean konpromiso jakin batzuk islatu dira, honela laburtu daitezkeenak:

- Agenda publiko gardenak ezartzea.
- Urtero, herritarren partaidetza eta kontsulta prozesu nagusiak zehaztea.
- Kudeaketa plan garden eta eraginkor bat egitea, herritarren partaidetza (kontsulta) bidezko ebaluazio sistema batez lagunduta.
- Herritarren aurrean kontuak ematea zeharkakotasunez.
- Legealdirako plan estrategikoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundia egituratzea.

Adierazitako guztiari jarraituz, Foru Gobernuaren ildo estrategiko horretan lehenengo pausoa izan zen, Foru egituraren barne, Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio Foru Departamentua sortzea, eta 2015-2019 agintaldirako eginbehar politiko nagusia zehazten duen ideia-indar berri hori departamentu horretako zuzendaritza nagusietan ezartzea.

Zehaztasun gehiegitan sartu gabe, argi dago koalizioan gobernatzeko Itunean islatutako ideia eta konpromiso zehatz gehienek "Gobernantza Onaren" politikarantz garrantzitsua zuzenean, eta kontzeptu hori Gobernu Onaren ideiaz harago doala (ideia hori ere barne hartu arren); 2015-2019 agintaldirako ezarri nahi den gobernatzeko modu berriari Gipuzkoako gizarte zibila ere txertatzen baitu.

Izan ere, Gobernantza modu berriaren ideiak honetan datza: Gipuzkoan "gobernatzeko modu berri bat" ezarri nahi da, ez Foru Aldundiaren barneko antolaketa erronkei aurre egiteko soilik; baizik, gainera, Foru Aldundiak beste erakundeekin dituen antolakuntza harremanak ere lantzen ditu, gizarte zibilarekin konpromisoak eta harremanak ezartzen ditu, hain zuzen ere, gizarteak Foru politika publikoaren sustapenean, diseinuan, egikaritzean eta ebaluazioan parte har dezan, bereziki arloko sektoreetan.



Agintaldi honetako Foru Gobernuaren politikaren jarduera ildoetako bat Konpromiso Etikoa da, arestian azaldu den moduan, eta Gobernantza Etikoaren aldeko erakunde apustu gisa ere birdefinitu daiteke kontzeptu hori. Ildo horrek zeharkako izaera du zalantzarik gabe, eta ondorioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gobernatzeko garatu nahi den modu berriaren izaera modu nabarian zehazten du. Arestian aipatutako ideia gehienek ere Konpromiso Etiko hori edo Gobernantza Etikoa lortzeko helburu hori islatzen dute nolabait.

Ondorioz, zalantzarik gabe ondorioztatzen da Itun horren ondorioz, zuzenean edo zeharka, Balio eta Jarduera printzipio batzuk eratortzen direla, eta horiek guztiek Foru Aldundiaren jarduera zehaztuko dutela, eta foru kargu publikoak betetzen dituen pertsona orok printzipio eta balio horiek sustatu, errespetatu eta erabili beharko dituela.

Premisa horiek oinarritzat hartuta, azpimarratu behar da Gobernantza kontzeptu horren barne daudela gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, eraginkortasuna eta eragimena, finantza iraunkortasuna, herritarren partaidetza edo kontuak ematea. Horiek guztiak behar bezala jasota daude Gipuzkoako Foru Aldundia koalizioan gobernatzeko Itunean.

Gainera, Gobernu Onaren kontzeptu zehatzagoaren barne, barne dimentsioan kokatzen diren helburu eta printzipio jakin batzuk zehazten ditu Itunak, horiek kanpoan izan beharreko eragina eragotzi gabe: etengabeko berrikuntza, kudeaketa tresnak berritzea, antolakuntza eredu berriaren aldeko apustua edo, azken finean —arestian esan den moduan—, arduradun publikoen jokabide etikoa bermatzea.

Horrek guztiak zerikusi zuzena du etika publikoa edo erakundearen zuzentasuna lortzeko politika sustatzearekin. Halaber, aipagarria da, duela urte batzuetatik hona, Etika Publikoa edo Erakunde Zuzentasuna dela Gobernantza Onerako edozein politikako ildo nagusietako bat, herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza indartzeko, ezinbestekoa baita arduradun publikoek eta funtzionarioek beren eginbeharrak ongi betetzea, eta horiek guztiak jokabide publiko zein pribatu egoki eta eredugarria edukitzea.

Arestian ikusi dugun moduan, Gobernantza, Gobernu Ona eta Etika (edo beste modu batean esanda, gobernantza etikoa eta zentzuduna edo eraginkorra) ageri dira arestian aipatutako Itunean, eta hori guztia modu gardenean azpimarratu zuen diputatu nagusiak, hain zuzen ere 2015eko ekainaren 23an, Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean emandako inbestidura hitzaldian.

Erakundearen Zuzentasun Politikaren diseinurantz: foru kargu publikoen Zuzentasun eta Eredugarritasunarekiko Konpromisoa lehen pauso gisa

Aspalditik, gobernariaren jokabideak arreta handia piztu du, eta beti egin dira horren inguruko hausnarketa ugari. Hala ere, XX. mende amaieran, demokrazia aurreratu batzuetan (Kanadan, Ameriketako Estatu Batuetan edo Erresuma Batuan) gobernariaren eta funtzionario publikoen interes gatazkak eta jokabide kodeak arautu behar izan ziren.



Ustelkeria kasuen eta arduradun publiko jakin batzuek baliabide publikoak gaizki erabiltzearen ondorioz, ekintza politiko "erreaktiboak" jarri ziren abian: interes gatazken eta bateraezintasunen esparruan legeria zorrotzagoa onartu zen eta Jokabide Kodeak ere onartu ziren, ardura publikoak betetzen zituzten pertsona guztiek bete beharreko Balio, Printzipio eta Jokabide Arauak zehaztuz.

Hala ere, Jokabide Kode horiek ez ziren soilik aitorten dokumentuak, baizik hedapen eta sustapen neurri multzo batekin batera onartu ziren; horrez gain, erakunde sistema batek dilema etikoen jarraipena eta ebazpena bermatzen zuen, eta kasu batzuetan, sistema horrek diziplina eskumenak zituen, baita proposamenak edo gomendioak osatzeko eskumena ere (erakunde postu jakin batzuk sortuz, esaterako, Etika Publikoaren Arduradunak edo Batzordeak).

Halaber, Kode horien osagarri gisa (oso ohikoak izan baitziren anglo-saxoi herrialdeetan), Gidaliburu batzuk ere argitaratu ziren, bertan Balioen, Printzipioen edo Jokabide Arauen interpretazio onargarrienak edo, kasuan-kasuan, emandako gomendio zein irtenbideak zehaztuz.

Erresuma Batuan, 1994. urtean argitaratu zen Nolan txostena, Bizitza Publikoko Jokabide Arauei buruzkoa, Herri Arduralaritzaren Herri Erakundeak 1996. urtean gazteleraz argitaratu zuena. Txosten hori argitaratu zen iskanbila batzuen ondorioz, herritarrek erakundeengan zuten konfiantza murriztua indartzeko, eta bertan Printzipio jakin batzuk zehazteaz gain, Erresuma Batuko erakunde publikoetan oro har Jokabide Kodeak onartzea sustatu zuen.

1990eko hamarkada amaieran eta XXI. mendeko lehenengo urtetan, ELGEk ere norabide bera jarraitu zuen, eta Kode Etikoak onartu zituen bai Administrazio zein Funtzio Publikoko esparruan, baita parlamentuetan ere. Horrez gain, Europako Kontseiluak "Gobernantza Onaren eta Berrikuntzaren" politika sustatu zuen 2006. urtean, eta politika horretako ildo nagusietako bat etika publikoa zen.

2001. urtean Europako Batzordeak batzordekideen Jokabide Kode bat onartu zuen, eta handik urte batzuetara —iskanbila jakin batzuen ondorioz—, zehazki 2011. urtean, Europako Parlamentuak interes gatazkak arautzeko kodea onartu zuen. Azkenik, adibide gehiago ez ematearren, Frantzian, Bizitza Publikoko Eredugarritasun eta Gardentasun politika onartu zen, 2012. urteko Jospin txostena eta 2013ko legeak (Bizitza Publikoko Gardentasunerako Arduradun Nagusia sortu zutenak) oinarritzat hartuta. Halaber, 2015eko Nadal txostenaren ondoren, Frantziako Errepublikako erakunde publiko guztietan kode deontologikoak onartzea proposatu zen.

Beraz, argi dago lege bidezko araudia soilik ez dela nahikoa, funtzio publikoen egikaritzea zuzentasunez eta modu eredugarrian egiten dela bermatzeko, eta uste hori Frantziaraino iritsi da, betiere kontuan hartuta, orain arte, herrialde horretan, Legea izan dela araudiak ezartzeko esparru bakar eta baztertzalea, eta orain arte behintzat, ez zaiola arretarik eman anglo-saxoi munduan onartu diren Jokabide Kodeen korronteari.



Ingelesezko *compliance* erakundearen kontzeptua (araudi jarraipen lanak egitea, horien barne, jokabide arauak betetzen direla bermatzeko; jarraipen lan horiek oso finkatuta daude anglosaxoi herrialdeetako enpresa esparruan eta arlo publikoan) esparru publikoan txertatzeko premiaren ondorioz, frantses tradizioko europar Zuzenbide kontinentalean ere txertatu da.

Espainiako Estatuan, berriz, oso berriak dira kode etikoak edo jokabide kodeak. 2005. urtean aurrekariren bat egon zen arren (Estatuko Administrazio Orokorreko kargu nagusien gobernu onerako kodea; bide batez esanda, 3/2015 Legeak indargabetua), aurrerago antzeko esperientziak abian jarri diren arren, aipagarria da onartu diren kode guztiak "kosmetikoak" izan direla; hau da, horiekin batera ez direla Erakundearen zuzentasun sistemak abian jarri, eta hain zuzen ere, beste demokrazia aurreratuetan sistema horiek jarri zirela abian. Adela Cortina irakasleak —gai honetan benetan aditua denak— argi esan zuen moduan: "Etika ez da kosmetika".

Salbuespen bakarra Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko Kargu Publikodunen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea izan zen, 2013an onartutakoa (horren ondoren, beste erakunderen batek ere antzeko kodea onartu zuen). Horren aurrekaria aurreko legealdian onartutako kodea izan zen (2011. urtean onartutakoa); beraz, Erakundearen zuzentasun Sistemen korrante aurreratuetan kokatzen da Eusko Jaurilaritzaren Etika eta Jokabide Kodea, eta erreferentzia puntutzat jo daitekeen joera ildoak markatzen du.

Hala ere, horrez ez du esan nahi beste gobernu egitura baterako onartutako eredia inolako kritikarik egin gabe beste inon aplikatu behar denik. Hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak berezko berezitasunak ditu, hori argi dago, eta horrelako prozesuetan, bere nortasun izaera markatu behar dute.

Gainera, arestian ikusi den moduan, Foru Aldundia koalizioan gobernatzeko Ituneko artikuluetan jokabide printzipio batzuk ageri dira zehaztuta, hain zuzen ere agintaldi honetan gobernuaren jarduerarako esparrua zehazteko; printzipio horiek kontuan hartu behar dira Foru Aldundiko kargu publikoen Jokabide Kodeko balioak eta printzipioak zein diren zehazteko orduan, baita Jokabide Arauak zehazteko orduan ere.

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundirako Erakundearen zuzentasun sistema diseinatzeko orduan, erakundearen berezko berezitasunak kontuan hartu behar dira, baita erakundearen ekintza garatzen den lurraldea ere. Horrez gain, foru kargu publikoek bete beharreko Balio, Printzipio eta Jokabide arauak identifikatu behar dira, hain zuzen ere erakunde horretan koalizioan gobernatzeko Ituna kontuan hartuz.

Azterlan ezberdinetan aitortu den moduan, etika publikoko araudiak "egite prozesuan dauden lanak" dira (*work in process*). Helburua ez da araudi zehatz eta amaituak onartzea, baizik eta egunero, jardunbidea kontuan hartuz, araudi horiek hobetzen joatea, kasuan-kasuan aurre egin beharreko errealitate berriak kontuan hartuta.



Eta hori da, zalantzarik gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa: Erakundearen zuzentasun sistema bat diseinatzea, orain arte egindakoari balioa emateko, eta lehenik eta behin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko errealitate ekonomiko zein soziala eta bertako erakunde publikoen errealitatea kontuan hartuta, "Gipuzkoa Eredugarri" marka modu eraginkorren sortzeko erakunde eraldaketa prozesua bultzatzeko. Ideia-indar horrek seriotasuna, eginkizun egokiak, sare bidezko lana eta zuzentasunaren potentziala azpimarratu behar ditu, globalizazioaren eta lehiakortasunaren esparruan, Gipuzkoako erakunde sare konplexuari dagozkion ezaugarriak emateko.

Herritarrak gero eta zorrotzagoak dira arduradun publikoekin, hain zuzen ere beren funtzioak gauzatzeko orduan bete beharreko jokabide estandarrei dagokienez. Gipuzkoako herritarrak ere gero eta zorrotzagoak dira. Eta zorrotz izaten jarraituko dute, zalantzarik gabe. Horrek ez gaitu kezkatu behar, gizarte osasuntsu baten sintoma argia baita hori. Erakunde bide egokiak sortu behar dira emari kritiko hori "jendetza zentzudun" bihurtzeko (Berggruen/Gardelsen esaldia aipatzearen).

Baina zorrotasun eskaera horrekin batera, herritarrak politikarengandik eta ordezkari publikoengandik alden du dira, eta fenomeno horri "hoztasun" gisa da ezaguna. Kezkagarria da herritarren eta botere publikoen arteko sintonia eta konfiantza gabezia hori.

Hala ere, hoztasun horrek ez gaitu harritu behar, azken urte hauetan, Espainiako estatuko bizitza politikoan ustelkeria kasu ugari egon baitira. Zorionez, Euskadiko eta Gipuzkoako bizitza politikoan, jokabide estandarrek askoz ere hobeak dira, eta ustelkeria kasu gutxi egon dira. Hala ere, Gipuzkoako herritarrek ez dute suebakirik (pentsaezina baita komunikazioaren gizaratean, Interneten eta sare sozialen garaietan), eta komunikabideen bidez horrenbeste ustelkeria kasuren berri duenez, arestian esan dugun moduan, herritarrek beren arduradun politikoen zuzentasuna zalantzan jar dezakete, eta hala, ziur asko modu bidegabean, politikarien jokabideen aurrean susmoak eduki ditzakete.

Aipatu berri dugun egoera bati aurre egitea erronka handia dela kontuan hartuta, Foru Gobernuak ekintza batzuk jarriko ditu abian erakundearen zuzentasun politika diseinatu, onartu eta gauzatzeko. Politika horren helburu nagusia izango da foru kargu publikoek eta zuzendariak betetzen dituzten pertsonen jardunbide zintzo, garden, eraginkor eta zentzuduna egiten dutela bermatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko foru karguen Erakundearen zuzentasun sistema eraikitzea oinarritzat hartuz.

Erakundearen zuzentasun sistema hori eraiki, onartu eta ezagutzera eman baino lehen, Zuzentasun Politika horri lehenbiziko bultzada handi bat eman behar zaio. Hala, ildo horretako lehen neurri gisa, Gobernantza Onerako eta Erakundearen Zuzentasun Balio eta Printzipio Esparrua osatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiko kargu publikoen eguneroko jardura arautzeko, eta aldi berean, arestian aipatu dugun Erakundearen zuzentasun sistema berehala diseinatzeko esparrua izan dadin.

Etika eta gobernantza oneko balio zein printzipio horiek Foru Gobernuaren Erabaki batean bilduko dira, eta horiek oinarritzat hartuta, foru kargu publikoek beren funtzioak betetzeko



orduan eduki beharreko jokabide arauak identifikatuko dira. Jokabide Arau horiek identifikatu ondoren, arestian aipatutako balio eta printzipioekin batera, etorkizuneko Jokabide Kodean islatuko dira.

Arestian esan dugun moduan, prozesu horretan, lehenik eta behin esparrua zehaztuko da (Balioak eta Printzipioak), eta jarraian, Jokabide Kodea. Hala ere, azken hori ez litzateke erabat osatuta egongo ez bada Erakundearen zuzentasun sistema batean txerutzen, eta horren funtsezko elementuak hauek izango lirateke:

- Gobernantza Onerako eta Erakunderen Zuzentasun Printzipio eta Balioen esparrua osatu eta onartzea.
- Foru kargu publikoen eta pareko langileen Jokabide Kodea osatu eta onartzea.
- Zehaztutako Balio, Printzipio eta Jokabide Arauen arabera, kargu bakoitzak banakako atxikipena egitea (berariazko konpromiso bidez).
- Prestakuntza saioen bidez (tailerrak), Balioak, Printzipioak eta Jokabide Arauak sustatu eta ezagutaraztea publiko hartzailearen artean. Azalpen material edo gidak zein bideoak osatzea, besteak beste, edukiak barneratzen errazteko, eta foru karguen jarduera eta jokabideen inguruan proiektu eraginkorrak egiteko.
- Kexak, kontsultak edo salaketak jasotzeko prozedurak zehaztea, betiere kasu jakinetan isilpekotasuna bermatuz, eta horiek guztiak izapidetzeko bide eta organoak zehaztea.
- Etika edo Erakundearen Zuzentasun Batzorde edo Arduradun bat izendatzea, aplikatu beharreko Balio, Printzipio eta Jokabide Arauak sustatu eta interpretatzeko funtzioak bete ditzan, baita gatazka etikoak ebatzi edo interpretazio-zalantzak, kexak zein salaketak ebazteko. Horrez gain, urteko txostena osatu beharko du eta Jokabide Kodean egin beharreko aldaketak proposatu beharko dizkio Foru Gobernuari, kode hori errealitate eta testuinguru berrietara etengabe egokitzeko.
- Jokabide Kodearen betetze maila ezagutzeko Ebaluazio Sistema zehaztea (urtero edo bi urtez behin), era horretan dagozkion aldaketak proposatzeko.

Lehenengo dokumentu horri dagokionez, Gobernantza Onerako eta Erakundearen Zuzentasun esparrua bakarrik atxiki da. Horren edukia aztertu, aldatu eta baliozkotu ondoren, Jokabide Kodea osatuko da, Balio eta Printzipio horiek Jokabide Arauetan islatuko ditu, eta arestian aipatu dugun Erakundearen Zuzentasun Sistemako oinarriko ildoak zehaztuko ditu.



FORU GOBERNUAREN ERABAKIA:GOBERNANTZA ETIKO, ZENTZUDUN ETA ERAGINKORRERAKO KONPROMISOAK

2015-2019 agintaldi honetan, Kudeaketa Plan Estrategikoan zehazki aipatutako moduan, Gobernantza Etikoaren aldeko apustu garbia egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horrek esan nahi du balioetan oinarritutako kultura sustatuko duela foru kargu publikoen eta erakundearen jardueran.

Halaber, Kudeaketa Plan Estrategiko horretan bestelako jarduera ildo asko ere aipatzen dira, besteak beste, helburu hauekin zerikusia dutenak: gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, etengabeko berrikuntza, antolakuntza eredu berria martxan jartzea, eta harremanean oinarritutako gobernurantz aurrera egiteko premia, besteak beste.

Zalantzarik gabe, jarduera ildo horiek guztiak gobernantza onaren ideia-indarraren barne sartzen dira, Gobernu Onaren politika guztiak sartzen baitira esparru horretan, eta foru politika publikoak diseinatu, egikaritu eta ebaluatzeko orduan, gizarte zibilaren partaidetza onartzeko prest baitago.

Gobernantza Onaren inguruko ildo estrategiko horien guztien bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren xede nagusia da Gobernantza Etiko, zentzudun eta eraginkorrerantz aurrera egitea, era horretan, Foru Aldundiaren antolakuntzan nahiz foru kargu publikoetan zuzentasun edo eredugarritasun balioak eta gobernu onaren printzipioak txertatuz, gobernatzeko modua nabarmen aldatzeko eta, aurrerago, horri guztiari esker, jokabide arau eta jarduera printzipioak zehazteko.

Gobernantza Etikorako politikaren oinarrietako bat da erakundearen zuzentasun sistema bat eraikitzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu hori lortzeko konpromisoa hartzen du, baina hori baino lehenago, aurrenik nahitaezko pauso bat ematea egokia dela uste du: Erabaki hau, *Gobernantza Etiko, zentzudun eta eraginkorrerako konpromisoa* izenekoa onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko entitateetako foru kargu publikoen jokabidea eta jarduera zehazten dituzten Balio eta Printzipioak biltzen baitira bertan.

Erabaki hori lehenengo pausoa da Gobernantza Etikorako eta Erakundearen Zuzentasun Politika sustatzeko bidean. Izan ere, Foru Gobernuko zuzendari eta arduradun publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, eredugarritasuna izan behar dute xede, baina aldi berean, foru kargu publikoak betetzeko orduan, pertsona horiek Gobernantza Ona, zentzuduna eta eraginkorra arautzen duten printzipioak, hain zuzen ere testu honetan labur-labur jasotakoak, jarraitzeko ahalegina egin nahi baita.

Herritarrek erakundeengan duten konfiantza mantendu eta indartzeko, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiarengan, Gobernantza Etikorako eta Erakundearen Zuzentasun Politika bultzatu behar da nahitaez. Horretarako lehenengo pausoa da Erabaki hau onartzea, aurrerago onartzen den jokabide kodeko eta gobernantza oneko edo jardunbide egokien kodeko funtsezko atal ere izango dena.



Gaur egun, balioak inoiz baino garrantzitsuagoak dira. Gobernarien zuzentasuna eta eredugarritasuna ere bai. Halaber, bereziki garrantzitsuak dira bizikidetzaren, tolerantzia eta errespetua. Baina, arestian aipatutakoaz gain, kudeaketa egokia edo kudeaketa eraginkorra ere garrantzitsuak dira. Azken urte hauetan, euskal erakundeek, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak buru dituztela, kudeaketa egokiaren bandera jaso dute.

Baina kudeaketa egokian eta lehiakortasunaren hobekuntzan ere asko daukagu ikasteke Gipuzkoako ekonomia eta enpresa sare dinamikoaren eskutik. Foru kargu publikoek Erabaki honetan ageri diren Balio eta Printzipioak barneratu eta etengabe betetzen badituzte bakarrik lortuko da gure foru erakundearen irudi publikoa hobetu eta Gipuzkoako herritarren konfiantza berriro erakartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Gobernurantz.

Prozesu horretako lehen pausoa da Erabaki hau, prozesu etengabe zein iraunkorra izango dena, heinean-heinean Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa azpiegiturak eta azpiegitura etikoak hobetzeko. Bestelako pauso eta aurrerakuntzekin batera, berehalako jarraipena izango du honek. Eta, nolabait, Foru Aldundiak erronka gerora ezintzat jotzen duen Erakundearen zuzentasun sistema horretara txertatuko da. Era horretan, Foru Aldundiak Gipuzkoako herritarrei erakutsi nahi die bere erakundeek zuzentasuna eta eragimena lortzeko Balio eta Printzipioen arabera jarduten dutela beti, eta horiek errespetagarritasun publikoa eta zerbitzu publiko egokiak sortzea dutela helburu. Eta hala bakarrik, hau da, eguneroko lan eredugarriarekin, eta ez hitzekin soilik, lortuko da herritarrek foru administrazioarengan duten konfiantza indartzea.



GOBERNANTZA ETIKO, ZENTZUDUN ETA ERAGINKORRERAKO BALIOAK ETA PRINTZIOAK

GOBERNANTZA ETIKORAKO BALIOAK

1.- Ordezkaritza.

Foru kargu publikoek ordezkari organikoko funtzioak beteko dituzte, bai barne esparruan bai kanpo esparruan, erakundearen irudiak eskatzen duen duintasun eta begirunearekin. Beren funtzioak betetzeko orduan, erabateko erantzukizunez eta erakunde zentzuz jokatu dute, kontuan hartuta, erakunde ordezkari gisa egiten dituzten jardueretan, Foru Gobernuan dagoen ala dauden indar politikoa edo indar politikoak bozkatu dituzten herritarrak ordezkatzear gain, Gipuzkoako herritar guztiak ordezkatzeko dituztela.

2.- Zuzentasuna.

Funtzio publikoak betetzeko orduan, foru kargu publikoek jokabide etiko akasgabea izango dute beti, bai edozein funtzio publiko betetzeko orduan, bai beren irudi publikoan eragina izan dezaketen bizitza pribatuko alderdietan ere. Halaber, egindako proposamenen arabera izan beharko da kargu publikoen jardura, eta Erabaki honetan jasotako Balio eta Printzipioak, edota Jokabide Kodea eta Jardunbide Egokiak (edo Gobernantza Ona) mantentzeko orduan eragin negatiboa izan dezakeen edozein barne ala kanpo presio alde batera utziko dute.

3.- Eredugarritasuna.

Gipuzkoako herritarrentzat, foru kargu publikoen jardunbidea da erakundearen irudiaren isla. Ondorioz, foru kargu publikoen jokabidea publiko zein pribatua eredugarria izan beharko da beti. Eredugarritasun faltagatik Foru Aldundiaren erakunde irudia erasaten bada, edo Foru Aldundiaren ospe publikoa edo kapital soziala hondatzen bada, Jokabide Kodeak eta Jardunbide egokiak xedatutako moduan zuzendu beharko da gabezia hori.

4.- Zuzentasuna eta eskuzabaltasuna.

Foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo du lan. Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, edo bestela, Etika Batzordeari ala Etika Arduradunari, hala badagokio. Baldintzen arabera edo ematen diren gomendioen arabera, dagokion organoan edota prozeduran erabakia hartzeko prozesuan ez du parte hartuko, ez zuzenean, ez zeharka ere. Halaber, foru kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak ez dute opari edo onurarik onartuko, baldin eta horiek beren zuzentasuna zalantzan jarri badezakete edota erabakiak hartzeko prozesuetan zein erabakietan parte hartzeko orduan baldintzatzen dituztela pentsa badaiteke. Ildo horretan edozein zalantzarik edukiz gero, organo eskudunari helarazi beharko zaio, horretarako zehaztutako bideak erabiliz.

5.- Objektibotasuna.



Foru kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak, beren jarduera publikoak egitean, interes orokorrek, funtzio publikoak betetzeak eta herritarren zerbitzura dagoen sektore publikoko berezko eginbeharren arabera objektibotasunez jokatu beharko dute. Objektibotasun hori bereziki garrantzitsua izango da erabakiak hartzeko edo erabakietan parte hartzeko orduan, baldin eta erabaki horien arabera izendapenak zein kontratazio publikoak egin eta diru laguntzak ematen badira, edota botere publikoek erabaki jakin batzuk hartzeko orduan inpartzialtasuna babesteko printzipio zein arauak betetzea zalantzan jartzen bada.

6.- Profesionaltasuna.

Foru kargu publikoek, esleitu zaien esparruan, profesionaltasun handiz beteko dituzte beren funtzioak. Horretarako, hau da, profesionalizazio hori bermatzeko, karguak izendatzeko prozesuetan, aldez aurretik behar bezala egiaztatuko da kargu horiek beteko dituzten pertsonak dagozkion ardurak betetzeko eskatzen diren eskumen profesionalak dituztela. Halaber, Foru Aldundiak Goi Zuzendaritza Publikorako diseinatutako prestakuntza programen bidez garatuko dituzte foru kargu publikoek beren eskumen profesionalak, zuzendaritza esparruan beren profil profesionala hobetzeko eta beren funtzio zein eginbeharra ahalik eta modu egokienean gauzatzeko.

7.- Eragimena.

Foru kargu publikoek, baliabideak kudeatzeko eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egiteko orduan, eragimena izango dute xede, eta ondasun edota baliabide publikoak erabiltzeko orduan, ez dituzte horiek inola ere xahutuko, eta horiek ahalik eta gehien optimizatuko dituzte. Etengabeko berrikuntza edo hobekuntza prozesuen bidez sustatuko da eragimenaren xedea, eta prozesu horietan, politika publikoen ebaluazioa izango da funtsezko oinarrietako bat. Arreta berezia emango zaio Foru Aldundiko finantza iraunkortasuna bermatzeari, eta geroko gobernuen zein etorkizuneko belaunaldien jarduera ez hipotekatzeari.

8.- Bizikidetzeta eta errespetua.

Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzean eta beren jokabide pertsonalaren bidez, bizikidetzeta, elkartasuna eta tolerantzia oinarri dituen gizartea indartuko dute, pertsonen arteko errespetua, aniztasuna eta pertsonen arteko solidaritatea bultzatuz. Horrez gain, beti pertsona orok merezi duen dagokion adeitasunez, zuzentasunez, errespetuz eta duintasunez tratatuko dituzte bai herritarrak, bai Administrazio Publiko zerbitzuetako langileak, zuzendariak eta gainerako kargu publikoak. Beraz, ez dute mespretxuzko hitzik erabiliko edota edonolako bereizkeria (genero, ideologia, sexu orientazio, arraza, ezintasun edo bestelako arrazoiengatikoa bereizkeria) sortzen duten jarrerarik edukiko.



GOBERNANTZA ETIKO, ZENTZUDUN ETA ERAGINKORRERAKO PRINTZIBIOAK

1.- Lidergo partekatu eta eraldatzailea.

Foru kargu publikoek, Gobernantza Onerako politikaren esparruan, Gipuzkoako gizarteak eskatzen duen lidergo partekatu eta eraldatzailea gauzatuko dute. Beraz, esparru publikoaren eta pribatuaren artean eta erakundeen artean beharrezkoak diren lankidetzak zein sinergia guztiak sustatu eta bultzatuko dituzte, bereziki udalerriekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako tokiko entitateekin. Halaber, politika publikoen eta aipatutako entitateen antolakuntzak modu iraunkorren egokitu eta eraldatzea sustatuko dute, beren helburu eta egiturak gizarteak eskatzen dituen aldaketetara egokitzeko.

2.- Gardentasuna.

Foru kargu publikoen jardueraren ildo nagusia gardentasuna izango da zentzu zabalenean ulertuta, betiere herritarren funtsezko eskubideak errespetatuta eta indarrean dagoen legeria betez. Gardentasunaren funtsezko helburua da herritarrei eskatzen duten informazioa edota informazio publiko garrantzitsua ematea, indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz, era horretan, herritarrek jakin dezaten foru erakundeak nola antolatzen diren, nola betetzen dituzten beren funtzioak, nola erabiltzen dituzten baliabideak. Hala, herritarrekin konfiantzan oinarritutako harremana ezarriko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren erakunde zilegitasuna indartuko da, eta kontuak ematea ere erraztuko da.

3.- Datuen eskuragarritasuna.

Gardentasun politika eta publizitate aktiboa behar bezala garatuz, foru kargu publikoek datuak benetan eskuragarri jarriko dituzte (Open Data), informazioa bihurtu dadin jakintza era egoki batean, eta hala, Gipuzkoako herritarren bizi kalitatea hobetu eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko hazkunde ekonomikoa sustatzeko.

4.- Kudeaketa eta berrikuntza eredu berria.

Foru kargu publikoek Antolakuntza Eredu Berriaren aldeko apustua egingo dute, zeharkakotasuna eta desburokratizazioa sustatuz, erabakiak hartzeko prozesuak hobetzeko, kudeaketa erraztu eta hazkunde ekonomikoa zein inbertsioak sustatzeko. Horrez gain, Administrazio elektronikoa benetan garatzea, eta prozedurak zein izapideak errazteko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea da helburua. Halaber, herritarren partaidetza sustatuko dute erabakiak hartzeko prozesuetan. Azkenik, berrikuntza modu sistematikoan sustatuko dute, bai barne edo gobernu esparruan (bertan aktore nagusi izan behar baitira), bai kanpo esparruan ere, enpresa esparruan zein zerbitzuen esparruan berrikuntza sustatuko baitute.

5.- Euskararen sustapena eta erabilera.

Foru kargu politikoek modu aktiboan sustatuko dute euskararen erabilera Foru Aldundian, bai barne antolaketarako politika zein administrazio lanak garatzeko, bai bestelako botere



publikoekin edo gobernu mailekin dituen harremanetan (baldin eta euskara hizkuntza ofizial gisa badute edota euskararen erabilera aitortzen badute), baita herritarrekin eta herritar elkarteekin eduki beharreko hartu-emanetan ere. Horrez gain, beren funtzioak betetzeko orduan, euskararen eta gazteleraren ofizialtasunaren esparrua erabat errespetatuko dute, eta beraz, ez dute hizkuntzagatiko bereizkeriarik sortzen duten jarrerarik izango.

6.- Kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka.

Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, kohesio sozial zein ekonomikoa sustatuko dute, baita Gipuzkoako gizartearen lurralde oreka ere. Esparru ekonomikoari dagokionez, industria eta ekintzailtza sarea indartzeko ahalegina egingo dute, baita lehiakortasuna hobetzeko azpiegiturak garatu, nazioartekotzeko merkatu berriak irekitzeko ere. Halaber, gazte kualifikatuentzako eta denbora luzea langabezia daramaten pertsonentzako lanpostuak sustatzeko ahalegina ere egingo dute. Esparru sozialari dagokionez, beren funtzioak betetzean, heinean-heinean gizarte ezberdintasunak ezabatu eta gizarteratzea bermatuko dute, gizarte prestazio sistemaren iraunkortasuna baitute xede. Lurralde orekari dagokionez, lurraldearen azpiegiturak bultzatuko dituzte; horretarako, tokiko entitateekin sarean lan egingo dute, eta Gipuzkoako udalerrietan gobernantza indartuko dute, era horretan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoak kalitate eta eragimen handikoak izan daitezzen.

7.- Harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa.

Gobernantza Onerako politika harreman kapitalean oinarritutako gobernurako funtsezko ildo dela kontuan hartuta, foru kargu publikoek bi norabideko entzute aktiboa indartuko dute, baita gipuzkoarrekin duten harremana ere, baterako sorkuntzan eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko sinergietan oinarritutako ekintza publikoan, partaidetza eta konpromiso herritarra indartuz. Horretarako, foru politika publikoak diseinatu, egikaritu, onartu edo ebaluatzeko esparruan, Gipuzkoako herritarrekin, elkarteekin eta enprekin komunikazio bideak etengabe zein modu aktiboa sustatuko dituzte, horretarako lankidetzak gardentasun formulak erabiliz, erakunde egitura edota sareak eta partaidetza prozedurak sortuz, betiere kontuan hartuta helburu nagusia interes orokorrak eta kontu publikoen finantza osasuna bermatzea.

8.- Kontuak ematea.

Foru kargu publikoek, beren funtzioak betetzeko orduan, ardura osoz jokatu dute beti. Horrek esan nahi du esleitutako funtzioei dedikazio berezia emango dietela, erabaki bakoitzak sorrarazten dituen interes eta egoerak baloratuz, erabaki horiek behar bezala arrazoituz, eta edonola ere, funtzio horiek betetzeagatik sortzen diren ondorioak eta beren jokabideen ondorioak beren gain hartuz. Foru karguek aldi behin kontuak eman beharko dituzte herritarren aurrean. Jarduera publikoan aritzeagatik kontuak ematea sistema demokratikoaren funtsetako bat da, dagozkion instantzien aurrean egingo da, eta herritarrek beren erakundeengan eta bertan ardura publikoak dituzten pertsonengan duten konfiantza zein sinesgarritasuna indartzeko modu bakarra da.